

Hil honetan Arizmendiarrietak GIZARTE ERALDAKETARI buruz zituen ideiak landuko ditugu, izan ere, balio hori oso kontuan hartzen ari baita hilabete hauetan gure komunitatearen etorkizuna diseinatzeko, datozen belaunaldiei begira. Don Jose Mariak maxima argi bat zeukan, berari buruzko idatzi askotan agertzen dena: mundua etengabe eraldatzeko eman zaigu, ez begira egoteko. Hemen TULankideren aurretik, COOPERACION izenarekin, sortu zuen lehen aldizkarian agertzen diren beste ideia batzuk adierazten ditugu.

Egile eta sortzaile izan behar dugu, lehendik eta behin **humanoa** izango den **mundu berria** lortu arte... Coop. 3. zk. – 1960ko azaroa.

Ideala, zalantzarik gabe, handia da, mugarik gabea: ideia benetan **iraultzailea**. **Mundu berri** jaiotzen ari da, gaur egungo joera nabarmena da **gizarte berri** baterantz jotzea, **justuago, humanoago** baterantz, eta joera horretan **kooperatibistok** oso rol garrantzitsua dugu jokatzeko. Coop. 21. zk. – 1962ko maiatza

Gure **kooperatibismoa** zirkulu indibidualetik haratago ondorioak dituen **sustapen sozialeko** mugimendu bat da, eta horren bilakaerak bat egiten du **komunitatearenarekin**. Sustapenerako hirugarren bidea da, distantzia berdinerara dagoena **kapitalismo** indibidualistatik eta arimarik gabeko **kolektibismotik**. Bere erdigune eta ardatza **pertsona** da, bere testuinguru sozialarekin. Coop. 14. zk. – 1961eko urria.

Kooperatibismoa minoria batek gobernatzen duen mundu ekonomiko-sozial bati, zeina minoria horren interesetara makurtuta baitago, emandako erantzuna eta erreakzioa da, Kooperatibismoa mugimendu batez ere demokratikoa da, eta bere bermea eta erreferentzia **pertsona** da, eta ez izaera instrumentala duten kapitalak. Coop. 18. zk. – 1962ko otsaila.

Gure **konpromiso** kooperatibistak ezin du begien bistatik galdu **gizarte ordena berri** bat lortzeko xedea. Beraz, ezinbestekoa dugu ahalegina egitea ordena hori gure eraginpeko eremuetan abiarazteko, baldin eta ez badugu molde estuko eta irteerarik gabeko kooperatibismo batean geratu nahi. Coop. 27. zk. – 1962ko azaroa.